

Ermuko 7 ordezkari lehiatu dira Aragoiko Taekwondo txapelketan

Luana Gallardo, Uxue Corrales, Araitx Prieto, Julen Garcia, Agustin Wals eta Henar Santin gaztetxoek parte hartu dute Nazioarteko VIII. Open ITF Aragoi Txapelketan. Martxoaren 22an burutu zen, Zaragozan, eta bertaraino joan ziren Eneko Cabello, helduen kategorian parte hartzeko, eta guztien entrenatzailea den Christian Lassalle argentinarra ere.

Mundu osoko taekwondo kirolariak bildu ziren martxoan Zaragozan; tartean, Ermuko 6 ume aritu ziren, 5 eta 13 urte bitartekoak, Euskadiko eskolen ordezkari bezala. ITF taekwondo espezialitatean jardun zuten guztiek (hau da, modalitate ez olinpikoan), eta lehiatzeko, kategoria eta, batez ere, adina eta pisuaren arabera banatu zituzten.

Ohi den moduan, txapelketak bi zati izan zituen: formak eta borroka. Mugimendu koreografikoak dira formak,

eta gerriko bakoitzari forma jakin batzuk dagozkio. Defentsa eta erasoz osatutako koreografia da eta berau erakutsiz, aurkariarekin lehiatu behar da: zeinek egiten duen indar handiagorekin, posizio egokiarekin... Bestalde, borroka dago. "Umeekin kontuz ibiltzen gara, minik har ez dezaten —dio Christian Lassalle entrenatzaileak—. Horregatik, ostikadak eta ukabilkadak ematen dituztenean, zigortu egiten ditugu: keinuak baino ez dituzte egin behar".

Ermuaren artean, Luana Gallardok (bigarrena formetan) eta Agustin Walsek (hirugarren sailkatua borrokan) lortu zituzten emaitzarik onenak. Helduen kategorian, berriz, Eneko Cabello ermuarrak bigarren postua lortu zuen borrokan. Txapelketa batean parte hartzen zuen hirugarren aldia zen



eta, entrenatzailearen hitzetan, polito ibili ohi da.

Kirol baketsua

Christian Lassalle duela bi urte eta erdi hasi zen taekwondo klaseak Ermuan ematen. Bigarren dan-a du berak, hau da, 2. mailako gerriko beltza (guztira 9 dan dira) eta, batzuek pentsa dezaketenaren kontra, kirol lasaia da taekwondo. "Koreatik datorren diziplina honek 5 oinarri ditu: kortesia, zintzotasuna, pertseberantzia, auto-kontrola eta espiritu menderakaitza —dio entrenatzaile-

ak—. Lehen klasean azaltzen dira kontu horiek, eta, norbait harrotxo jarrerarekin datorrela ikusten badut, ez diot klaserik ematen".

Izan ere, taekwondoa egin nahi dutenek lanerako prest egon beharko dute: indarra, erreflexuak, distantziak, taktikak eta borrokarako estrategiak landu beharko dituztelako, besteak beste. Gainera, gerrikoek maila adierazten dute eta, maila batekin bestera pasatzeko, azterketak egin behar dira: bai teorikoak, bai praktikoak.



OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Montis DQ Mouth

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ONAINDIA
HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41